



Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

DESKARGATU PDF

Aromak ez dira berez kontsumorako substantziak.

Elikagai gehitzen zaizkie usain edo zapore bat emateko

edo usaina edo zaporea aldatzeko; izan ere, elikagaien ekoizpen-prozesuen ondorioz, ezaugarri organoleptikoak aldatu egiten dira.

Honako kategoria hauek osa ditzakete: sustantzia aromatizatzaileak, prestakin aromatizatzaileak, prozedura termikoen bitartez eskuratutako aromak, ke-aromak, aroma-aitzindariak edo beste aroma edo aroma-nahasketa batzuk.

Berezi@: elikagai - aromak - ELIKA (2015)

Elikadura-aromei buruzko galderak eta erantzunak - AECOSAN

AROMEN ADIERAZPENA

Aromak

elikagaien osagaien zerrendan agertu behar dira, "aroma" gisa

edo izen espezifikoago batekin (E zenbakia). Gainera, oso-osorik iturri naturaletatik eskuratu direnean, "*naturala*

" terminoa erabili ahal izango da.

SEGURTASUNA EBALUATZEA ETA BAIMENTATZEA

Europar Batasunean erabiltzen diren aroma guztiak ebaluatu eta baimendu egin behar dira. Horretarako, kantitate horietan seguruak direla frogatu behar da.

2003az geroztik, Elikadura Osasuneko Europako Agintaritzak (EFSA) milaka substantzia aromatiko ebaluatu ditu eta zerrenda bat argitaratu du baimendutako elikadura-aromekin.

Substantzia aromatizatzaile bat baimendu daiteke baldin eta berau erabiltzeko honako baldintza hauek betetzen badira: Ez du arriskurik eragin behar kontsumitzaileen osasunerako, eskuragarri dauden froga zientifikoetatik abiatuta; betiere, proposatutako kantitateetan erabiltzen badira.

Horiek erabiltzeak ez ditu kontsumitzaileak nahasiko.

Datu Basea - EBn baimendutako aromak

LEGERIA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1334/2008 (EE) Araudia, 2008ko abenduaren 16koa, elikagaietan erabilitako aromei eta propietate aromatizatzaileak dituzten elikadura-osagai jakinei buruzkoa eta honako hauek aldatzen dituena: Kontseiluaren 1601/91 (EE) Araudia, 2232/96 (EE) eta 110/2008 (EE) Araudiak eta 2000/13/EE Zuzentaraua

Batzordearen 873/2012 (EE) Araudia, 2012ko urriaren 1ekoa, neurri iragankorrak ezartzen dituena aromei eta oinarriko materialei buruzko Batasuneko zerrendari dagokionez. Zerrenda hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1334/2008 Araudiaren (EE) I. eranskinean agertzen da

Legeria aplikatzeko dokumentu lagungarriak:

Aromen legedian aplikatu beharreko gida - AECOSAN 2016

Zuzenean aplikatu beharreko erkidegoko xedapenak (AECOSANen orria)

Flavourings - EU rules

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

berri@elika.eus

